



SANFERMINAK 2019

PORTADA LEHIAKETA, HAURREI ZUZENDUA

Lesakako Udalak lehiaketa deitzen du, 2019ko Sanferminetako programaren gibelego azala aukeratzeko.

ARAUTEGIA

-Azalak: kartulina edo paper lodian aurkeztu behar dira, norberak nahi duen teknika erabiliz.

-Neurriak: A4.

Derrigorrez, bertan agertu behar du: **LESAKA 2019ko SANFERMINAK**

-Gaia: Norberak nahi duena, zertarako den kontutan hartuz.

-Lanok jatorrizkoak eta argitaratu gabeak izan behar dute.

-Partehartzaileak: Lesakan jaiok edo bertan erroldatutako haurrak, 6 urtetik 12 urte bitartekoak.

-Aurkezpena: lanak sobre batean sartuta aurkeztuko dira udal bulegoetan. Sobre honek eta lanak berak izenburu bat izanen dute, sobrean adieraziko dena. Sobre horren barruan bertze sobre ttiki bat itxita, eta bertan aurkezlearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa idatziko dira. Partehartzaile bakoitzak nahi adina lan aurkezten ahal ditu.

-Aurkezteko epea: **apirilaren 12ko 13:00 orduak arte**.

- Aurkezten diren lan guzietan **erakusketa** bat osatuko da Kultura eta Turismo Bulegoan, Beheko Plaza 5, **apirilaren 18tik 28ra (biak barne)**.

-**Herri bozketak** erabakiko du lehiaketa, eta haren erabakia apelaezina izanen da. Horretarako erakusketak irauten duen bitartean, bertan, Lesakan jaiok edo bertan erroldatuak direnak, bozketak egiteko aukera izanen dute.

-Aurkezten diren lanak Sanferminetako programan argitaratu ahal izanen dira.

-Udalaren esku geratuko da saritutako lana. Bertzeak itzuliko dira.

SARIAK

1.a..... **100 euroko bonoa** Lesakako dendetan eskolako materiala erosteko.
Sariduna programaren gibelego azalean argitaratuko da.

Lesakan, 2019ko martxoaren 6an
Alkatea,

